

**MERTXE AZKONIZAGA
DAKARGU GAUR GOGORA,
BERAREKIN POZTEN DA
BIZIAN GORA.**

1	5	9
Artzain onak deitu ta zuk jarraitu, maitasun-lokarriz beretu zaitu.	Lan ta lan urduri, ez dala ona, besteak poztea da zoriona.	Ez da behar asko zuk dinozunez, dana ondo egin ta maitasunez.
2	6	10
Jesusez beterik buru ta bihotz, hautsi dozu gaixo eta heriotz.	Jesusek emonda zer pozkario! Bihotz-iturritik polpol dario.	Hau zein pozgarria dan guretzako! Danagaitik, Mertxe, eskerrik asko!
3	7	11
Jesus da egia, Jesus bidea, Jesus bizia da zure fedea.	Pozik txastau dozu zeruko mana, apal txikientzat bakarrik dana.	Zorionak zuri, txiki haundia! Gozatu egizu Tabor mendia.
4	8	12
Bakez eta pozik gaixo ta guzti, Jesus izan dozu zure eguzki.	Zuretzat Kristo da bizi betea, eta heriotza irabaztea.	Agur laster arte, ez gugaz eten; Jesusen ondoan hartu atsedeen!